


2009tik 2010era, %7 jaitsi egin dira droga-mendetasunen ziozko tratamendu-hastapenak EAEko gazteen artean

2010ean, 15 eta 29 urte bitarteko mila gaztetik bik hasi zituzten droga-mendetasunen ziozko tratamenduak. Kannabisak eragindako kasuek kokainak eragindakoak gainditu zituzten, estrainekoz

EAEko gazteek hasitako drogamendetasun-tratamenduei buruz argitaratu diren azken datuak erantsi eta [Gazteei buruzko Adierazleen Sistema](#), online kontsulta daitekeena, eguneratu egin du [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Drogamendetasunen ziozko tratamendu-hastapenen kopurua funtsezko adierazlea da drogen erabilerak biztanleengan duen eragina neurtzeko. Adierazle horrek zera adierazten du: urte jakin batean, substantzia psikoaktiboen abusua edo mendekotasuna dela-eta, tratamendua hasten duen pertsona-kopurua. Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzaren [Toxikomaniei buruzko Informazio Sistemak](#) (TIS) prestatzen du adierazle hori.

2010ean, 15 eta 29 urte bitarteko 694 gaztek hasi dute droga-mendetasunen ziozko tratamendua EAEn. Kasu-kopuruak behera egin du azken urteotan; 2009 eta 2010 bitartean, beherakada %7koa izan zen. Azken hamarkadan, 2003an erregistratu zen tratamendu-hastapen kopururik handiena: 820 kasu. Hortik aurrera, beheranzko joera leuna gertatu da. Datuak euren testuinguruan kokatzeko, komenigarria da gogoratzea 1990eko hamarkadan, tratamendua hasten zuten gazteen kopurua egungoa halako bi zela (aintzat hartu behar da jatorrian heroina-kontsumoa zegoela, izugarri jaitsi dena). 1993tik aurrerako datuak Gazteen Adierazleen Sistemaren kontsulta daitezke.



Era berean, azpimarratu beharra dago gazteak pisua galduz doazela erregistraturiko kasu guztien artean. Hartara, tratamendua hasi zuten lagun guztien laurdena baino ez ziren 2010ean.


15 eta 29 urte bitarteko gazteen droga-mendetasunen ziozko tratamendu-hastapenen ehunekoak, EAEko tratamendu-hastapenen guztizkoarekiko. Bilakaera 1999tik 2010era. Zenbaki absolutuak eta ehunekoak

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Hastapenak, guztira	2.218	2.157	2.355	2.560	2.803	2.989	2.793	2.695	2.654	2.865	2.757	2.755
Hastapenak, 15 eta 29 urte bitarteko gazteengan	763	640	650	667	820	814	802	728	699	773	743	694
Gazteen hastapenen % guztizkoari dagokionez	34%	30%	28%	26%	29%	27%	29%	27%	26%	27%	27%	25%


Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, [Toxikomaniei buruzko Informazio Sistemak \(TIS\)](#) emandako datuak oinarri hartuta.

2010ean tratamendua hasi zuten gazteen %86 gizonak izan ziren (599) eta emakumeak %14 baino ez (95). Drogen kontsumo problematikoak, osasunerako arriskutsuak diren jokaerekin lotutako beste hainbat gaitan bezala, gizonak gutxiago jotzen dute euren burua babestera, emakumeek baino.

Tratamendu gehienak 25 eta 29 urte bitartekoek hasi zituzten (%46); 20 eta 24 urte bitartekoek tratamenduen %35; eta 15 eta 19 urte bitartekoek, %19.



Tratamendua eragiten duen droga nagusia kannabisa da, estrainekoz. 246 tratamendu-hastapen eragin zituen, guztizkoaren %35, hain zuzen ere. Atzetik kokaina datorkio, kasuen %34 (237 tratamendu-hastapen 2010ean). Kannabisarekin gertatu ez bezala, beherakada nabarmena jasan du kokainak 2008tik. Kannabisaren igoera %18koa izan zen 2009az geroztik; kokainaren jaitsiera %20koa izan zen.



Tratamendu-hastapenen tasa kalkulatu gero, hau da, 15 eta 29 urte bitarteko mila laguneko, zenbatek hasi duten alkoholaren edo bestelako drogen ziozko tratamendua 2010ean, zera antzeman daiteke: EAEko mila gaztetik bik hasi zutela droga-mendetasunen tratamendua. Tasa hori nabarmen handiagoa da gizonen artean (3,5, milako) eta 20 urtekoen eta nagusiagoen artean (2,3).

15 eta 29 urte bitartekoen droga-mendetasunen tratamendu-hastapenen tasa, adin-taldean eta sexuaren arabera. 2010

Tasa, milako	Guztira	Gizonak	Emakumeak
15-19	1,5	2,6	0,4
20-24	2,3	3,8	0,8
25-29	2,3	3,9	0,6
15-29	2,1	3,5	0,6

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, [Toxikomaniei buruzko Informazio Sistemak \(TIS\)](#) eta [INEK \(Biztanleen Udal Errolda\)](#) emandako datuak oinarri hartuta.

Gazteen artean tratamendu-hastapen gehien sortarazten duen droga kannabisa izanik, arrazoi horrengatik tratamendua hasitako gazteen tasak kalkulatu ditugu, substantzia horren mendetasunaren eragina ezagutzeko. 15 eta 29 urte bitarteko mila gaztetik, 0,7k hasi zuten 2010ean tratamendua. Horien artean, mutilak eta 25 urtera artekoak nabarmentzen dira.

15 eta 29 urte bitartekoen kannabis-mendetasunen tratamendu-hastapenen tasa, adin-taldeen eta sexuaren arabera. 2010

<i>Tasa, milako</i>	Guztira	Gizonak	Emakumeak
15-19 urte	1	1,7	0,3
20-24 urte	0,9	1,6	0,2
25-29 urte	0,4	0,8	0,1
15-29 urte	0,7	1,3	0,2

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, [Toxikomaniei buruzko Informazio Sistemak \(TIS\)](#) eta [INEk \(Biztanleen Udal Errolda\)](#) emandako datuak oinarri hartuta.

Datu hauek guztiak [Gazteen Euskal Behatokiaren Adierazleen Sistemari](#) kontsulta daitezke.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

